



Curriculum

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

ARLOAK:

EUSKARA

GAZTELANIA

ATZERRIKO HIZKUNTZA



ARLORAKO SARRERA

Hizkuntza funtsezkoa da gizakiaren garapenean, eta bere bi alderdietan gainera: banakoari zein gizarteari lotuta. Banakoari dagokionez, pentsatzen, jakinduria moldatzen eta jarduera bideratzen laguntzen dion tresna delako. Gizarteari dagokionez, gizartearen bidez transmititzen eta mantentzen delako, eta giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri hartuta eraikitzen eta garatzen direlako. Hizkuntza da kultura sortzen eta eusten duen tresna.

Hizkuntzak, pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboari estuki lotuta egonik, sentimenduak arautzen ditu, eta edozein ikaskuntzarako (bizitzakoak zein akademikoak) bitarteko nagusia da. Izan ere, esperientzia, hitzez adierazten denean -esanbidez edo idatziz-, eraldatu egiten da, eta maila berri bat lortzen du. Horregatik, hizkuntza ongi menderatzeak norberaren baitara hurbiltzeko, besteekiko harremanetan jartzeko, elkarlanean aritzeko eta modu autonomoan ikasteko tresna egokiak eskaintzen ditu.

Beraz, irakurtzeko zein idazteko gaitasuna izatea eta hizkuntza oro har menperatzea funtsezkoak dira ikaskuntzan. Eta hain zuzen ere horixe jaso du Europako Parlamentuak, hezkuntzaren inguruan prestatu dituen hainbat dokumentutan.

Gizakiak hizkuntzarako duen gaitasuna hizkuntza zehatz batzuetan gauzatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoan, bi hizkuntza ofizial izatean (euskara eta gaztelania), ikasleek, derrigorrezko eskolatzea bukatutakoan, bi hizkuntza hauen jakintza praktiko eta akademiakoa ziurtatzeko konpromisoa hartu du eskolak, betiere kontuan izanik euskarak -berezko hizkuntza dena- arreta berezia eskatzen duela hizkuntza gutxitua izatean.

Gaur egun, gero eta handiagoa da gure hezkuntza sisteman eta gizartean bertan orain arte agertu ere egiten ez ziren hizkuntzak erabiltzen dituzten ikasle alofonoen ehunekoa. Honek guztiak aberastu egin lezake gure herriaren etorkizuna eta, beraz, babestu egin beharko litzateke.

Eskolak euskara eta gaztelania erakutsi behar die ikasle hauei, ez baitute ez bata ez bestea ezagutzen, eta hori erronka handia da ikastetxeentzat datozen urteetarako.



Informaziorako eta komunikaziorako teknologien mundu globalizatuan, non hizkuntza ofizialak diren nagusi, hizkuntza globalak direlakoak ikasi beharra sortu da. Horrek hiritar eleanitzak sortzeko lehen planoan kokatu ditu eskolak.

Xede hori lortzeko, ez dira hizkuntzen irakasleak bakarrik engaiatu behar; aitzitik, eskola guztia dago helburu horretan inplikaturik. Ikasgai guztietako irakasleek daukate xede honetan kooperatzeko ardura, ikasleek jakintza-alor bakoitzean behar bezala ulertu eta adierazteko ahalmena izango dutela ziurtatzeko.

Egoera honek distantzia kulturalak kontuan hartu beharra eta ikasleek beren ikaskuntzako aro ezberdinetan hizkuntz ezagueretik itxaropenak dibertsifikatu beharra dakar berriz ere eta, ondorioz, baita ezagutza hori ebaluatzeko zenbait irizpide ezartzekoa ere.

Ikasleria neurri handi batean dagoeneko eleanitza izateak, beren hizkuntz ezagueren lekuan jartzera behartzen ditu irakasleak, irakasteko metodoak hausnartzera eta doitzera, eta, batez ere, hizkuntzen tratamendu bateratuari arreta berezia eskaintzera.

Curriculumean hizkuntzak modu bateratuan irakasten badira, honako arrazoi hauengatik da: alde batetik, ikasle elebidun edo eleanitza hizkuntza bat baino gehiagoz balia daitekeelako uneoro, eta baita hauei esker eskuratutako ezagutzez ere; bestetik, garbi dagoelako transferentzia-prozesuak oinarrizkoak direla gizakiaren adimenerako, eta hizkuntzak une berean ingurune ezberdinetan egon daitezkeelako (familiar, eskolan, ingurune birtualean, taldean, eta abar.). Ingurune horietan parte hartzen dute ikasleek. Alderdi hauek nahikoa dira bakoitzari dagokiona eman behar zaiola ikusteko, eta denek komunean dutena partekatzen saiatzeko, betiere bakoitzaren erabilera egokiaren mesedetan.

Hizkuntzak modu bateratuan planifikatzeak -batean landutako edukiak besteetan ere aprobetxatu ahal izan daitezken- aurreztu egiten du denbora, eta ekidin egiten ditu irakasleentzat zein ikasleentzat aspergarriak izan daitezkeen errepikapenak. Gainera, komunikazioaren eta hizkuntzen funtzionamendua ezagutzeko balio du, banaka aztertzeak eskaintzen duen abstrakzio-maila baino handiagoan, nahiz eta euren artean inolako artikulaziorik ez bilatu.

Hizkuntza bat ezagutzeak, aldi berean soziala eta pertsonala den tresna bat menderatzea esan nahi du. Hizkuntza irakastea (denak eta edozein),



erabiltzen irakastea da. Gogoan izan beharra dago hizkuntzak ezin direla irakatsi beraien erabileran trebatu gabe, nahiz eta, harrigarria bada ere, oraindik ere badiren hizkuntzak irakasteko tradizio memoristikora eta taxonomikora jotzen duten batzuk. Hobetzeko, ezinbestekoa da hizkuntzen erabileren, aldaeren eta barne-harremanen inguruan hausnarketa egitea. Haatik, ikasteko modu horrek hizkuntzaren gaineko jakintza hobetzeko aukerak ematen dituela oharitzen den heinean du interesa erabiltzailearentzat. Horregatik egin beharra dago hizkuntzaren gaineko hausnarketa Derrigorrezko Hezkuntzan.



ARLOAK GARAPEN ESPARRUEKIN DUEN HARREMANA

Giza garapeneko esparru guztietan agertzen dira hizkuntzak, tresna pribilegiatuak direlako komunikaziorako, mundua azaltzeko, gizarteratzeko, sentimenduak adierazteko eta erronka berriei aurre egiten laguntzen duen sormena garatzeko.

Kognizioaren esparruan, leku garrantzitsua betetzen du hizkuntzak, buruak zerbaitengatik pentsatzen baitu nagusiki hitzen bitartez. Izan ere, hitzek osatutako elkarrizketei esker jasotzen dira ezaguerak eskolan. Hitza da, kontzeptuak adierazten dituen, jakintza sortzeko eta biltzeko erabiltzen den bitartekoa; horrela, gai ezberdinak menperatzean, diziplina bakoitzak gai horiei buruz jarduteko dituen moduak ere ezagutzen dira.

Bistan denez, idatzizko hizkuntza ezinbesteko tresna dugu esparru honetan. Gizateriak denboran zehar bildutako ezaguerak gordetzeaz gain, bere laguntzarik gabe ezinezkoak liratekeen harremanak ezartzen uzten du, eta modu sistematikoan eta nahi bestetan jo daiteke bertara. Irakurketak mundua ezagutzeko, norbere buruaz hausnarketa egiteko eta denetarik ikasteko aukera ematen du. Hala ere, hain da ugaria eta anitza liburuetan pilatutako jakintza, non urte askotako gidaritza behar den. Irakurmenak jakintza autonomia osatzeko giltza ematen du.

Idazmena, bestalde, ezinbesteko tresna da norberaren adimenaren prozesuak ezagutzeko eta, ondorioz, prozesu horietan esku hartzeko: norberaren sentimenduen konplexutasunera hurbiltzea, norberaren eta besteen esperientziaz hausnarketa egitea, eta gure adimenak arrazoitzean hartutako bideak aztertzea, denok ezagutzen ditugun jarduera kognitiboak dira, eta idazmenak posible egiten ditu horiek guztiak. Eskolak indartu egin behar ditu hauek guztiak, eta hizkuntzaren arloa hain zuzen ere horretarako dago diseinatuta.

Goi mailako prozesu kognitiboak trebakuntza-aldi luze baten ondoren menperatzen dira, betiere zentzuaren bilaketaren gidaritzapean. Hitz egiten,



irakurtzen eta idazten, gizarteak eskainitako aukera ugaritan trebatu ondoren ikasten da. Maiztasun horren harian, "maila baxuko" oinarrizko zenbait prozedura automatizatu egiten dira, eta horrela erraztu egiten dira maila altuko prozedura intelektualak (adibidez, ulermenekoak eta metaulermenekoak, planifikaziokoak eta berrikuspenekoak). Automatizazio horiek ikasleen gaitasun kognitiboa eta interesa ez kaltetzeko modu bakarra, esanahia eta zentzua eskola-jardueren oinarri izatea da. Hizketak zein irakurketak eskatzen duten jariakortasuna, interesa duten gaiei buruz hitz egiten edo irakurtzen lortzen da.

Beste ikuspuntu batetik, emozioen eta sentimenduen munduek ere hizkuntza behar dute adieraziak izan daitezen. Hizkuntza jakin bat erabiltzeak, norberaren nortasuna eratzen laguntzeaz gain, taldeko nortasun linguistikoan zein kulturean parte hartzen laguntzen du. Eleanitza eta kulturantza den gure gizartean, hizkuntzen erabilerek hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrerak islatzen dituzte; horregatik, arlo honetako gaitasun orokorretako bat, aniztasun honen aurrean jarrera positiboak garatzean datza. Baina, horretaz gain, hizkuntzak - askotan konturatu gabe- aurreiritziak ere biltzen ditu, eta beharrezkoa da hauek kontrolatzea, gizarteko harremanak errespetuan oinarri daitezen.

Komunikazioaren esparruak alor honetako gaitasun orokorretan eragiten du; izan ere, hizkuntzak ikastearen oinarrizko helburua ikasleen gaitasun komunikatiboa garatzea da, hots, denetariko testuak era koherentean, kohesioz eta zuzenean ulertzeko eta sortzeko gaitasuna, etapa bakoitzeko egoera komunikatiboetara egokituta. XXI. mendeko gizartean ezin da komunikazioaz hitz egin ikus-entzunezko hizkuntzak kontuan izan gabe; horregatik, behar-beharrezkoa da hauek berariaz lantzea, esplizituki agertzen ez diren elementuen ulermen kritikoa garatzeko orduan ahalegin berezia eginez. Bestalde, Komunikaziorako eta Informaziorako Teknologia berriek aukera kontaezinak zabaltzen dituztenez, hauek ere aztertu egin behar dira, ikasleek modu eraginkorrean erabil dezaten beren ahalmen komunikatiboa. Azkenik, literatur-komunikazioak ere berariazko lan-eremua osatzen du alorrean, ikasle guztiak espazio eta denboran urruti dauden errealitateekin harremanetan jartzen, kultur-tradizioan sartzea errazten, gizakiari buruzko hausnarketa egiten laguntzen, eta hizkuntzaren dimentsio estetikora hurbiltzen.



Beste ikuspuntu batetik, hizkuntza gizartearen ekoizpena da eta, hala izanik, oinarritzko elementua da gizarteratzeko prozesuetan. Besteekin elkarrekintzan arituz eskuratzen eta ikasten da, eta elkartruke komunikatiboetan edo xede ezberdinak dituzten jarduera sozialetan parte hartzeko erabiltzen da. Eskolari dagokionez, ikaskuntza kooperatiboak, ikasgelan parte hartzeak eta harreman pertsonalak garatzeak erabilera linguistiko bereziak menperatzea eskatzen du. Alor honek, bestalde, ikasleen hizkuntz errepertorioa garatzen lagundu behar du, gizarteko ingurune ezberdinetan egokitasunez molda daitezen. Hizkuntz trebeziak garatzea beharrezkoa da esanahia negoziatzeko, gatazkak konpontzeko, jarrerak hurbiltzeko... hots, gizakien arteko harremanetan oinarrituta dauden jarduerak burutzeko.

Azkenik, hizkuntza oinarritzkoa da norberaren jarduera arrazionalki antolatzeko eta norbanakoaren helburuak lortzeko. Gainera, komunikatzeko trebetasunak garatzea mesedegarri zaio taldeko lanari. Bestalde, eta bigarren hizkuntzak ikasteari dagokionez, beharrezkoa da sorkuntza garatzea, honek komunikatzeko behar berriei irtenbideak bilatzera bultzatzen baitu ikaslea.



Curriculumama

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

LEHEN HEZKUNTZA

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA GAZTELANIAR HIZKUNTZA ETA LITERATURA

ALORREKO GAITASUNAK: LEHEN HEZKUNTZA

1. Ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta jarrera kritikoarekin interpretatzea, komunikazio eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.
2. Ahoz zein idatziz modu koherentean adieraztea, komunikazioa eraginkorra izateko kontuan izanik bai komunikazio-egoera desberdinen ezaugarriak, bai hizkuntzaren zenbait arau.
3. Eguneroko hainbat egoeratan egoki hitz egitea, pertsonen arteko komunikazio eraginkorra eta errespetuduna garatzeko arau sozio-komunikatiboak errespetatuta.
4. Hainbat testuinguru sozialetan eta kulturaletan egoki komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz gogoeta egitea eta estrategia eraginkorrak onartzea.
5. Hizkuntzen sistemak aztertzea, ulermen- eta sortze-prozedurak kontuan izanda. Helburua horietako bakoitzaren erabilera zuzena lortzea da.
6. Inguruko errealitate eleanitzari eta kulturantzari errespetua agertzeko, hizkuntz aniztasuna interpretatzea.
7. Norberaren esperientziei zentzua emateko, gizakia ulertzeko eta sentsibilitate ludiko-estetikoa garatzeko, literaturaz gozatzea.
8. Hizkuntza eta norbera hobetzeko eta aberasteko, literatur testuak irakurtzea, gozamen, informazio eta ikaskuntza-iturri gisa.



I ALORREKO EDUKIAK- LEHEN HEZKUNTZA

Hizkuntzak funtsean tresnak direnez, Alor honetako edukiak prozedura dute ardatz. Horregatik, prozedurazko edukiak lehen planoan daude, eta gainerakoak hauetatik eratortzen dira. Eduki kontzeptualak komunikazioa gertatzen den baldintzez edo posible egiten duten hizkuntz mekanismoez hausnarketa egiteko behar diren heinean integratzen dira. Jarrerazkoak, berriz, prozedurazkoei oso lotuta, ikaskuntza-prozesuan zehar sortzen diren egoerek eskatu ahala sartzen dira.

“Hitz egin, solas egin, entzun”, “Irakurri eta idatzi”, “Hizkuntzaren eta bere erabileren inguruko hausnarketa” eta “Literatur ekintza” dira Hizkuntzaren Alorreko eduki-blokeak.

Hitz egitea, entzutea, irakurtzea eta idaztea, gizartean harremanetan jartzeko, mundua ulertzeko, pentsamendua antolatzeke eta ikasteko prozedurak dira funtsean. Izaera hori, ikasten diren modutik bertatik ere etortzen da: hitz eginez ikasten da hitz egiten; irakurriz ikasten da irakurtzen, eta idatiz idazten. Hauek irakasteak, espiralean jardutea suposatzen du: itzuli bakoitzean, gero eta egokitasun eta kontrol handiagoz erabili behar dira hizkuntzaren baliabideak, gero eta ugariagoak diren egoera eta testuetan. Bide luzea da, eta Lehen Hezkuntzan ditu bere oinarriak.

Baina bloke hauei buruzko edukietan ikusi ahal izango denez, ez ditugu finkatu hizkuntza berria hitz egiten, irakurtzen eta idazteko ikastaldi luzeko lehen faseak. Egia izanik ere Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara datozen ikasleak, askotan, bigarren hizkuntzan hitz egiteko oinarriak ezagutuz datozela, eta apur bat irakurtzen ere, egia da baita ere derrigorrezko hezkuntza etapa honetan hasten dela, eta, hala izanik, ezaguera hori ezin dela jakintzat eman, ez eta, lortu den kasuan, alboratu. Ezinbestekoa da garbi izatea Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloari edonoren bizitza sozial eta akademikoan funtsezkoa izango den tresna hau ikasteko oinarriak finkatzea dagokiola.

Hizkuntzaren unitate minimoez edo zentzutik bakandutako hitzez hasten diren hurbilketatik aldenduz, hemen hizkuntza testuinguruan erabiltzea nagusitzen da hasieratik, nahiz ahozko komunikazioan nahiz hizkuntza idatzian. Zentzumen-ulermenezko ezagueraren ondotik, jabetze "periferikoaren" ondoren, dator analisi sistematikoa. Ahozko eta idatzizko



hizkuntza, hizketa eta idazketa presente diren eta zentzua zein esanahia daukaten testuinguruetan parte hartuz ikasten dira. Zentzu eta esanahi horiek dira, hain zuzen ere, erne dabilenari hitzak, morfemak, fonemak eta berauen harreman posible eta mugagabeak aurkitzen laguntzen diotenak. “Hizkuntzaren eta bere erabileren inguruko hausnarketa” deituriko blokean agertzen dira erlazio horiek, eta hauek aurrera eramateko gutxieneko kontzeptu-aparatua egituratzen du. Hala ere, esan behar da garbi dauden zehaztapenetan ez sartzeko -adibidez, hizkiak ezagutzeari lotuak daudenetan-, gure idazte-sistemaren izaera fonografiakoa ezagutu ondorengo faseei loturiko eduki kontzeptualak bakarrik zehaztu ditugula.

Zirrara eragiten duen testuaren aurrean gozatzea, hitzak ongi erabiltzea edo hizkuntzaren sonoritatea laket izatea, edozein literatur-analisiren aurretikoak dira, azken honek gero eta gehiago fintzen diren mekanismo kontzeptualak behar baititu. “Literatur Hezkuntza” izeneko blokearen bidez, analisi hori egiteko eta testuak interpretatzeko lehen pausoak eman nahi dira, eta literatur-ekintzaren alderdi ugarietara modu atseginean hurbiltzeko oinarriak jarri.

1. blokea: hitz egitearen solas solas

1. blokea: HITZ EGIN, ENTZUN ETA SOLAS EGIN**EDUKIAK**

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<p style="text-align: center;"><u>Ulertzeko prozedurak</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko testuetan adierazitako ideiak esperientzietan, bizipenetan eta ezagutzetan oinarrituz ulertzea. 2. Ideien analisia: datu objektiboak eta iritziak, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, gezurrezko elementuak, zentzugabeak, gaia eta azpigaiak... 3. Komunikazio-egoeraren ezaugarrien analisia: nork, zertarako... 4. Ahozko diskurtsoen interpretazioa: ideien arteko loturak, hizlariaren asmoa. 5. Ahozko testu mota ezberdinen identifikazioa. 6. Oharrak hartuta ahozko diskurtsoen edukiaren hainbat alderdi buruan gordetzea. 7. 2Hko ahozko diskurtsoak ulertzeko, hizkuntza ikasteko estrategiak erabiltzea 8. Beste hizkuntzetako ahozko diskurtsoak erraztasun handiagoz ulertzeko, 1Hn garatutako hizkuntz ezaguera formalak aktibatzea. 9. Ahozko diskurtsoen ulermena erregulatzeko, kontrol estrategiak erabiltzea. 10. Norbere ulermen-arazoen identifikazioa. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko komunikazioaren ezaugarriak eta elementuak: erregistro formala eta informala. 2. Komunikazioaren testuingurua: <ol style="list-style-type: none"> a. Hizketakideak b. Espazioa c. Denbora d. Asmoa e. Leku soziala 3. Ahozko testu-generoak: elkarrizketa, azalpen akademikoa, solasaldia, iragarkiak... 4. Arau sozio-komunikatiboak 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Parte-hartze aktiboa, kooperatzailea eta errespetuduna komunikazioan. 2. Ahozko elkarrekintza arautzen duten arauak baloratzea eta errespetatzea (hitz egiteko txandak, hizketaldiko hainbat rol, ahotsaren tonua, jarrera eta keinuak). 3. Edonolako bazterketa eragiten duten mezuen aurrean jarrera kritikoa izatea. 4. Lankidetzan eta errespetuan oinarritutako jarrera, partekatutako ikaskuntza-egoeretan. 5. Ahoskera eta intonazio egokiarekin hitz egiteko interesa. 6. Hizketakideen erabilera linguistikoekiko errespetua. 7. Hizkuntza ikasten ari direnen ahoskatzea, doinua eta aldaera dialektala errespetatzea. 8. Hedabideetatik eratorritako diskurtsoen mezuen aurrean sentsibilitate kritikoa izatea.

1. blokea: hitz egin, entzun, solas egin

<p><u>Sortzeko prozedurak</u></p> <p>11. Komunikatu nahi den edukiaren alde zuzeneko plangintza.</p> <p>12. Informazioa hainbat iturritan bilatzea (bibliografikoetan, ikus-entzunezkoetan, digitaletan).</p> <p>13. Ondoko puntuak kontuan izanda, ahozko diskurtsoak sortzea, alde zuzenetik prestatuta:</p> <ul style="list-style-type: none">a. Komunikazio-egoerara egokitzea: erregistroa, tonua, aurpegiera, gorputzaren jarrera, adetasun-arauak...b. Koherentziac. Zuzentasuna, hitz-jarioa eta ahozkeraren garbia. <p>14. Besteekin komunikatzean, arau elkarrenergile egokiak erabiltzea: arreta, kontzentrazioa, itxaronaldia, txandak, kortesia-arauak, erantzuna hizketakideak esandakoari egokitzea...</p> <p>15. Berdinen arteko dialogoa erabiltzea, partekatutako ikaskuntzaren tresna gisa.</p> <p>16. 2Hn ahozko diskurtsoak sortzeko, hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea.</p>		
--	--	--

2. blokea. Irakurtzea eta idaztea

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<p><u>Ulertzeko prozedurak</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hainbat testutan adierazitako ideiak ulertzea, esperientzien, bizipenen eta ezagutza garrantzitsuen baliabideetatik abiatuta. 2. Ideien analisia: datu objektiboak eta iritziak, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, gezurrezko elementuak, zentzugabeak, gaia eta azpigaiak... 3. Testuaren interpretazioa: ideien arteko loturak, egilearen asmoa. 4. Komunikazio-egoeraren ezaugarrien analisia: nork, zertarako 5. Idatzizko testuen generoak identifikatzea. 6. Edozein hizkuntzatan garatutako hizkuntza ezaguerak beste hizkuntzetako idatzizko diskurtsoak ulertzeko erabiltzea. 7. 2Hko testuak ulertzeko, hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea. 8. Idatzizko testuen ulermena erregulatzeko, kontrol-estrategiak erabiltzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Komunikazioaren testuingurua: <ol style="list-style-type: none"> a. Igorlea-hartzailea b. Espazioa c. Denbora d. Leku soziala e. Asmoa 2. Idatzizko testuen generoak: ipuina, albistea, jolasen argibideak, mezu elektronikoa... 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Komunikaziorako baliabide sozialetatik eta, bereziki, Internetetik etorritako mezuen aurrean jarrera kritikoa. 2. Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza gisa, zein esperientzien komunikazio eta elkarbizitzaren arautzaile gisa. 3. Edonolako bazterketa eragiten duten mezuen aurrean jarrera kritikoa izatea. 4. Hizkuntza normalizatzeko prozeduratan aktiboki eta erantzukizunez parte hartzea. 5. Norberaren testuak berrikustearen garrantzia baloratzea, koherentzia, egokitasuna eta zuzentasuna zaintzeko.

<p>9. Norbere ulermen-arazoen identifikazioa.</p> <p>10. Pentsamendua ordenatzeko idazketaren erabilera.</p> <p><u>Idatzizko produkziarako prozedurak</u></p> <p>11. Komunikazio egoeraren ezaugarriak kontuan izanda, edukia antolatzea.</p> <p>12. Informazioa hainbat iturritan bilatzea (bibliografikoetan, ikus-entzunezkoetan, digitaletan).</p> <p>13. Idatzizko testuak sortzean, ondoko puntuak kontuan izatea:</p> <ul style="list-style-type: none">a. Komunikazio-egoerara egokitzeab. Koherentzia eta kohesioac. Zuzentasuna <p>14. 2Hko testuak sortzeko, hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea.</p> <p>15. Partekatutako ikaskuntzaren bitarteko gisa, berdinen arteko elkarrizketa erabiltzea.</p> <p>16. Idatzizko testuak sortzeko, informazioaren teknologien erabilera.</p> <p>17. Testuen berrikusketa eta auto-zuzenketa.</p> <p>18. Ikasteko idatzizko testuak erabiltzea.</p>		
--	--	--

2. blokea: Irakurtzea eta idaztea

--	--	--

3. blokea: Hizkuntzari eta bere erabilerei buruzko gogoeta

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Bizitza sozialeko jarrera linguistikoen analisia. 2. Hizkuntzen arteko harremanek eragindako fenomenoek errekonozimendua. 3. Estatuko hizkuntzak identifikatzea eta beraien arteko harremanak aztertzea. 4. Testuetan hizkuntz aniztasuna antzematea: hizkuntzak, dialektoak eta erregistroak. 5. Testuinguruko eta testu barruko elementuei begira, testuak konparatzea. 6. Testuinguruko eta testu barruko aldaketen ondorioz, testuak eraldatzea 7. Adierazpen-markak azaltzen dituzten hizkuntz unitateak eta testuaren kohesioa ziurtatzen dutenak identifikatzea. 8. Oinarrizko kategoria morfosintaktikoak identifikatzea. 9. Ekoizpenak hobetzeko, norberaren testuak berrikustea. 10. Hizkuntza ezberdinetan helburu 	<p><u>Hiztunak eta hizkuntzak</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Elebakartasuna, elebitasuna, eleaniztasuna, 2. Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko mapa linguistikoa. 3. Hizkuntzak munduan. 4. Hizkuntzaren normalizazioa: euskararen egoera. 5. Hizkuntzen aniztasuna: dialektoa eta hizkuntza estandarra. 6. Hizkuntz eskubideak. <p><u>Testuingurua</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 7. Komunikazio egoerako elementuen karakterizazioa. <p><u>Testua</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 8. Testu-generoetako ohiko egiturak. 9. Kohesiorako elementuak. 10. Testuaren ortografia: paragrafoa. 11. Elementu grafikoak, ikonikoak eta espaziokoak. <p><u>Esaldia eta hitza</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 12. Hitzaren morfologia eta kategoria gramatikalak: deklinabide-markak, adjektiboa, izena, aditza... 13. Izen-sintagmen eta aditz-sintagmen multzoa. Multzo sintaktikoen funtzioak. 14. Esaldi bakuna. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Errealitate eleanitzaren balorazio positiboa. 2. Hainbat hizkuntzaren eta beren aldaeren erabilera errespetatzea eta positiboki baloratzea. 3. Edozer hizkuntzatako hiztunen eskubide linguistikoak errespetatzea. 4. Inguruko errealitate eleanitza eta kulturantizak baloratzea, interesatzea eta errespetatzea, eta norberaren nortasun eleanitza aintzat hartzea, aberastasun intelektualerako, kulturalerako eta sozialerako bitarteko gisa.

<p>berdinetarako erabiltzen diren zenbait hizkuntz prozedura konparatzea.</p> <p>11. Hizkuntza unitateak ezabatzeko, tokiz aldatzeko eta ordezkatzeko mekanismoak erabiltzea, hizkuntzaren funtzionamendua eta esanahian dituzten ondorioak behatzeko.</p> <p>12. Kalkoak eta hizkuntzen arteko transferentzia negatiboak zehaztea eta zuzentzea</p> <p>13. Oinarrizko arau linguistikoen erabilera egokia</p>	<p>15. 1H eta 2Hren arteko ezberdintasunak</p> <p>16. Esaldiaren eta hitzaren ortografia.</p>	
--	---	--

4. blokea: Literatur heziketa

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastetxeko liburutegia erabiltzea eta ikasgelako, ikastetxeko zein erkidegoko literatur ekintzetan parte hartzea. 2. Adinari eta interesei egokitutako obrak irakurtzea. 3. Ahozko eta idatzizko testuek dauzkaten adierazkortasun-aukerak miatzea, ozen irakurriz, modu adierazgarrian irakurriz, antzetzuz, etab. 4. Fikziozko testuinguru komunikatzaileak identifikatzea: magiazkoak, alegiazkoak, errealistak... 5. Partekatutako esanahiak eraikitzeke eztabaidatu eta negoziatzea. 6. Literatur testuan balio estetikoak, sozialak, kulturalak, etikoak... identifikatzea. 7. Olerkiak zein bertsoak ulertu, buruz ikasi eta ozen esatea, behar bezalako erritmoa, ahoskatzea eta doinua erabiliz. 8. Sentimenduak, zirrarak, gorputzaldiak edo oroitzapenak adierazteko, olerkiak eta kontakizunak antzeztea eta ekoiztea. 9. Irakurtzeko autonomia, gaia zein testuak aukeratzeko gaitasuna, eta bakoitzaren zaletasunak adierazteko gaitasuna garatzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Literaturaren dimentsio estetikoa, komunikatiboa eta soziala. 2. Literatura; komunikazioko ibilgailu, kultur jazoera eta gozamen pertsonalerako tresna gisa 3. Literatur generoak: narratiboa, lirikoa eta dramatikoa. 4. Literaturaren beste adierazpen batzuk: komikia, zinema... 5. Literatura kultur eredu gisa: euskal literatura, gaztelaniazko literatura eta literatura unibertsala. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Literatur testuaren balorazioa komunikazioko ibilgailu, kultur jazoera eta gozamen pertsonalerako tresna gisa, eta beste errealitateen, kulturen eta munduen ezagutza-iturri gisa. 2. Beste errealitateak sortzeko eta birsortzeko, irudimena baloratzea.



EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak hezkuntzako tresna gisa kontsideratzen dituzte. Dagozkien ebaluazio adierazleetan zehaztuta, irakaskuntza-prozesuaren balioa zehazten dute, ondoren ikasleen beharretara egokitzeko.

Jarraian datozen ebaluazio irizpideak, etapa bakoitzaren amaieran, erreferentzia gisa hartu behar dira. Hizkuntzen ikaskuntza-prozesuan, ordea, ebaluazioa beharrezko izaten den une asko daude.

Irakaskuntza- edota ikaskuntza-prozesua abiatzeko beharrezkoa da ikasleak, hainbat gunetan zein egoeratan, izandako komunikazioetan alde aurretik eraikitako ezagutzak zeintzuk diren jakitea.

Beharrezkoa da arlo horretako oinarriko alderdiak nabarmentzea; hala nola, komunikazio gaitasuna, hizkuntzen arteko transferentzia-prozesuak, ulermena menderatzea eta ahozko zein idatzizko adierazpena... Hori guztia, ikasgelako eguneroko jardunean eta ikaslearen bizitza-ingurunean islatzen da, eta, hori dela medio, gaitasunen garapena baloratzeko baliabide erabilgarrienetakoak eguneroko lanaren jarraipena eta lan horri buruz egindako behaketa dira.

Hizkuntza menderatzea beti hobe daitekeen prozesu konstantea eta jarraia da. Hori dela eta, ebaluazioak prozesu hori indartzeko eta babesteko balio behar du, baita ikaslea estimulatzeko ere. Inoiz ezin da helburu gisa proposatu.

Beste ikuspuntu batetik begiratuta, hemengo irizpideek, arloko gaitasunekin eta edukiekin batera, irakaskuntzako zein ikaskuntzako jarduerak antolatzerakoan irakasleak gida gisa erabiliko duen curriculumaren testuingurua osatzen dute.

LEHEN HEZKUNTZAN EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

GAITASUNAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
<p>1. Ahozko zein idatzizko diskurtsoak ulertzea, kritikoki interpretatzea, eta ikaskuntza egoera berriei aplikatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen du ohiko erabili ohi diren ahozko diskurtsoen zentzua, jabetzen delako adierazitako ideiez eta beren artean sortzen diren erlazioez. • Jarrera kritikoarekin interpretatzen ditu ahozko eta idatzizko diskurtsoak, eta identifikatzen ditu beraietan agertzen diren elementu inplizituak (zentzu bikoitza, ironia...). • Normalean erabili ohi diren idatzizko testuen zentzu globala ulertzea. • Laburtzen ditu testuetan adierazitako ideia nagusiak eta beren arteko harremanak. • Ahozko zein idatzizko testuetatik garrantzitsua den informazioa erauzten du, eta ikaskuntzako egoera berrietan aplikatzen. • Estrategia egokiak erabiltzen ditu testuak irakurtzean sortzen zaizkion zalantzak argitzeko.
<p>2. Ahoz zein idatziz modu koherentean adieraztea, komunikazioa eraginkorra izateko kontuan izanik bai komunikazio-egoera desberdinen ezaugarriak, bai hizkuntzaren zenbait arau.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ahoz mintzatzean, modu antolatu eta koherentean aurkezten ditu gertaerak, iritziak, zirrarak eta sentimenduak. • Komunikazio-egoerari berezko zaizkion ezaugarrietara moldatzen ditu bere ekoizpenak, alderdi formalak kontuan izanik. • Testu mota ezberdinak osatzean, dagokion egitura erabiltzen du, eta testuari koherentzia ematen dioten oinarritzko zenbait prozesu. • Aurrez finkatutako gidoi bati jarraitzen dio testu idatziak sortzean, produktuaren hasierako planari egokitzen ote zaion begiratzen du, eta dagozkion aldaketak sartzen ditu.
<p>3. Eguneroko hainbat egoeratan egoki hitz egitea,</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartu ohiko komunikazio egoeretan

<p>pertsonen arteko komunikazio eraginkorra eta errespetuduna garatzeko arau sozio-komunikatiboak errespetatuta.</p>	<p>a) Komunikazio-egoeraren ezaugarri bereziak kontuan izanda</p> <p>b) Trukeko arauak errespetatuta: arreta, kontzentrazioa, itxaronaldia, txandak, kortesia-arauak eta erantzuna hizketakideari egokitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko komunikazioan sortzen diren arazoak konpontzeko, konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu, batez ere 2Hn.
<p>4. Hainbat testuinguru sozialetan eta kulturaletan egoki komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz gogoeta egitea eta estrategia eraginkorrak onartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko zein idatzizko testu arruntetan, bereizkeria soziala, kulturala, sexuala eta abar sor dezaketen alderdiak identifikatzen ditu, eta bere testuetan saihesten ahalegintzen da. • Testu arruntetan espainiar Estatuako hizkuntza ezberdinak identifikatzen ditu, eta baita eskola-komunitatean presente dauden hizkuntzak ere.
<p>5. Hizkuntzen sistemak aztertzea, ulermen- eta sortze-prozedurak kontuan izanda. Helburua horietako bakoitzaren erabilera zuzena lortzea da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hausnartzeko orduan, bere ikas-aldiari dagozkion gramatika eta hizkuntz terminologia ulertzen eta erabiltzen ditu, testuen ekoizpen eta ulermenari lotuta. • Errespetatu arau ortografikoak sortze propioetan, eta erabili zalantzak argitzen dituzten laguntzak (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...) testu bat sortzeko prozesuan. • Esaldi bakuna osatzen duten oinarrizko elementuak (subjektua eta predikatua) identifikatzen ditu testu arruntetan, hitz mota nagusiak eta beren osaketa ezagutzen ditu, eta jakintza hauek testuak ekoiztean zein berrikustean erabiltzen ditu. • Ulermena eta ekoizpena hobetzeko asmoz, analisirako zenbait prozedura

	erabiltzen ditu (tartekatzeak, ezabatzeak, ordenaren aldaketak, hitzen, esaldien eta testuen zatiketa) .
6. Inguruko errealitate eleanitzari eta kulturantzari errespetua agertzeko, hizkuntzen aniztasuna interpretatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gogotsu hartzen du parte hizkuntza normalizatzeko prozeduratan • Hizkuntz errealitateen aniztasuna interpretatzeko, oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoaren inguruan dituen ezaguerak erabiltzen ditu. • Baloratu hizkuntza bakoitzak daukan garrantzia; agertu jarrera errespetuduna eta positiboa inguruko hizkuntza eta kultura anitzeko errealitatearen aurrean.
7. Norberaren esperientziei zentzua emateko, gizakia ulertzeko eta sentsibiltate ludiko-estetikoa garatzeko, literaturaz gozatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Testuak irakurrita ezagutu literatur hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak, eta baloratu horien dimentsio estetikoa. • Irakurketak aukeratzekoan adierazi irizpide pertsonalak, baita irakurritako testuei buruzko iritzi propioak eta gustuak ere. • Erabili liburutegiak, bideotekak, Internet... eta ulertu materialen antolaketa zein aukeraketa-prozedurak. • Parte hartu ikasgelako eta ikastetxeko literatur jardueretan.
8. Norbera eta hizkuntza hobetzeko eta aberasteko, literatur-testuak irakurtzea, gozatzeko, informatzeko eta ikasteko.	<ul style="list-style-type: none"> • Adinari eta interesei egokitutako liburuak irakurri. • Ezagutzen ditu ikas-aldiari egokitzen zaizkion literaturako ahozko zein idatzizko literatur-testuak, eta baita olerkigintzaren eta narrazioaren oinarrizko ezaugarriak ere. • Identifikatu ahozko adierazpen batzuen oinarrizko ezaugarriak eta horien literatur generoa. • Gogoan hartu eta antzeztu ahozko testu sinpleak, testuaren edukiari egokitutako ahoskera, eritmoa eta intonazioa erabilia.



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

ALORREKO GAITASUNAK* -DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA-

- 1) Ingurune desberdinetako hizkuntzaren erabileratik eratorritako ahozko zein idatzizko diskurtsoak ulertzea eta jarrera kritikoarekin interpretatzea; testu horien ulermena beste komunikazio-egoera batzuei aplikatzeko.
- 2) Ahoz zein idatziz modu koherentean espresatzea, komunikazio egoera desberdinen ezaugarriak eta hizkuntzaren arauak kontuan izanda. Helburua komunikazio beharrei modu eraginkorrean erantzutea da.
- 3) Hainbat testuinguru sozialetan eta kulturaletan egoki komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz gogoeta egitea eta estrategia eraginkorrak onartzea.
- 4) Hizkuntzen sistemen gainean hausnartzea, testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan izanda. Helburua horietako bakoitza zuzen erabiltzea eta transferentzia negatiboak saihestea litzateke.
- 5) Hizkuntza zein kultura anitzeko errealitatearen aurrean jarrera errespetuduna eta positiboa garatzeko, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoez baliatuta eleaniztasuna interpretatzea.
- 6) Norberaren esperientziari zentzu propioa emateko, mundua eta gizakiak ulertzeko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko, literatur-ekintzaz gozatzea.
- 7) Literatur testuak ulertzeko eta horien aurrean jarrera positiboa garatzeko, literatur generoen oinarrizko konbentzioen eta euren bilakaera historikoaren oinarrizko etapen ezagutza erabiltzea.
- 8) Literatur ondarearen ezagutzara gerturatzea, testuinguru historiko-kultural desberdinetan banakako esperientzia zein kolektiboa irudikatzeko modu gisa baloratzeko.



ALORREKO EDUKIAK- BIGARREN HEZKUNTZA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hizkuntzak irakastearen helburua, ikasleen komunikatzeko gaitasuna garatzea da, hau da, esparru ezberdinetatik datozen testuak modu egoki, koherente eta zuzenean ulertu eta ekoizteko gaitasuna garatzea. Testu ezberdinek eta euren erabilera-esparruek markatzen dute etapa honetako ikasleen bizitzan hizkuntzen erabileren hautaketa, eta, beraz, baita ikasleek etaparen amaieran hizkuntza bakoitzean menperatu behar dituzten edukiena ere.

Hizkuntzak funtsean tresnak direnez, alor honetako edukiek, Derrigorrezko hezkuntzan zehar, prozedura dute ardatz. Horregatik, prozedurazko edukiak lehen planoan daude, eta gainerakoak hauetatik eratortzen dira. Ikasleek, prozedurak gero eta hobeto menderatzen doazen heinean, hizkuntzek beren komunikazio beharrak asetzeko eskaintzen dizkieten aukerak ezagutzen eta menperatzen dituzte.

Kontzeptuzko edukiak pixkanaka barneratzen dira, hizkuntza-erabileren eta hizkuntzaren beraren inguruan hausnartzeko, betiere komunikatzeko gaitasuna hobetearren. Azkenik esan jarrerako edukiak ikaskuntza-prozesu guztian zehar daudela presente; laneko egoeraren arabera aktibatzen da, elkar lagunduz eta osatuz.

Hitz egitea, entzutea, irakurtzea eta idaztea, gizartean harremanetan jartzeko, mundua ulertzeko, pentsamendua antolatzeko eta ikasteko prozedurak dira funtsean. Beren izaerak, ikasteko modua ere markatzen du: hitz eginez ikasten da hitz egiten; irakurriz ikasten da irakurtzen, eta idatziz idazten. Hauek irakasteak, espiralean jardutea suposatzen du: itzuli bakoitzean, gero eta egokitasun eta kontrol handiagoz erabili behar dira hizkuntzaren baliabideak, gero eta ugariagoak diren egoera eta testuetan. Bide luze batez ari gara, zeinaren oinarriak Lehen Hezkuntzan jartzen diren, eta eskola-garaia bukatu ondoren ere jarraitzen duena.

Zirrara eragiten duen testuaren aurrean gozatzea, hitzak ongi erabiltzea edo hizkuntzaren sonoritatearekiko sentikortasuna izatea, edozein literatur-analisi baino lehenagokoak dira. Era berean, ahozko eta idatzizko hizkuntza zentzua eta esanahia duten testuinguruetan parte hartuz ikasten dira, eta



zentzu eta esanahi horiek dira, hain zuzen, erne dabilenari hitzak, morfemak, fonemak eta berauen harreman posible eta mugagabeak aurkitzen laguntzen diotenak. Hasieran dago zentzua.

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Ulertzeko prozedurak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Igorlearen asmoa zehaztea, ahozko diskurtsoan esplizituki edo inplizituki agertzen diren elementuak erabiliz, hizkuntzakoak izan edo ez. 2. Entzundakoaren edukiaren eta norberaren ezagueren artean dauden informazio-hutsuneak eta distantzia orekatzen laguntzeko estrategiak erabiltzea. 3. Ahozko diskurtsoen edukia gogoan gordetzea, zenbait ohar hartuta, eskemak erabilia, taulak... 4. Ahozko diskurtsoaren egitura globala eta bere atalen erlazio logikoak berreraikitzea, euren arteko kohesioa gauzatzen duten elementuak -hizkuntzakoak izan edo ez- identifikatuz. 5. Diskurtsoaren zentzu globala identifikatzea eta ideia nagusiak zein bigarren mailakoak baztertzea. 6. Lortu nahi diren helburuentzat, informazio garrantzitsua eta garrantzitsua ez dena banatzen jakitea. 7. Aurreikusitako helburuetarako jasotako informazioa erabiltzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahozko komunikazioaren ezaugarri propioak. 2. Ahozko komunikazio egoeren ezaugarri propioak: <ol style="list-style-type: none"> a. solasaldiaren helburua: azalpen-testuak, argudiozkoak, narraziozkoak... b. kudeaketa partekatua ala ez c. hizketakideak : harreman soziala, lekua eta denbora, partekatua edo ez, toki soziala... d. gaia e. kanala, euskarria 3. Arau soziokomunikatiboak: <ol style="list-style-type: none"> a. tonua b. ahozkoa ez den hizkuntza c. jarrera fisikoa d. kortesia-araua e. erregistroa eta aldaera 4. Ahozko testu-generoak: elkarrizketa, solasaldia, narrazioa, eztabaida, azalpen akademikoa, liskarra, erreportajea... 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Beste pertsonetikiko eta beren ideiekiko elkarlana eta errespetua. 2. Hizketakideen erabilera linguistikoekiko errespetua. 3. Lankidetzan eta errespetuan oinarritutako jarrera, partekatutako ikaskuntza-egoeretan. 4. Behar bezala ahoskatzeko eta doinu egokia erabiltzeko interesa izatea, ahozko elkarrekintza zuzentzen duten arauak errespetatuz. 5. Limurtzeko xedea duten mezuen aurrean jarrera kritikoa izatea, batez ere mezu horiek komunikabide sozialetatik datozenean. 6. Aurreiritzi arrazistak, klasistak, kulturalak, sexistak... dituzten erabilera linguistikoan aurrean jarrera kritikoak garatzea. 7. Ahozko elkarrekintzetan Euskara erabiltzearen aldeko jarrera positibo eta aktiboak mantentzea. 8. Informazio iturri desberdinen erabilerak duen garrantzia errekonozitzea.

<p>8. Ahozko diskurtsoen ulermena erregulatzeko, kontrolatzeko estrategiak erabiltzea.</p> <p>9. Bigarren hizkuntzan dauden ahozko testuak ulertzeko, ikaskuntza linguistikorako estrategien erabilera kontzientea.</p> <p>10. Edozer hizkuntzatan osatutako ahozko diskurtsoak ulertu ahal izateko, beste edozer hizkuntzatan garatutako ezaguera linguistiko formalak aktibatzea.</p> <p style="text-align: center;">Sortzeko prozedurak</p> <p>11. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatzea: helburua, erregistroa, hartzaileak...</p> <p>12. Hainbat iturritako informazioa bilatzea eta prozesatzea: analogikoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...</p> <p>13. Lortu nahi den helbururako informazio garrantzitsua aukeratzea.</p> <p>14. Testuaren edukia antolatzea, eskemak, oharrak, gidoiak... erabilia.</p> <p>15. Ondoko puntuak kontuan izanda, ahozko diskurtsoak sortzea, alde zuzenetik prestatuta:</p>		
--	--	--

<ul style="list-style-type: none"> a. Komunikazio-egoerara egokitzea: erregistroa, tonua, aurpegiera, gorputzaren jarrera, adeitasun-arauak... b. koherentzia c. zuzentasuna, hitz-jarioa eta ahoskera garbia. <p>16. Ahozko produkzio propioak berrikusteko eta erregulatzeko kontrol estrategiak erabiltzea.</p> <p>17. Bigarren hizkuntzan dauden ahozko testuak ulertzeko, ikaskuntza linguistikorako estrategien erabilera kontzientea.</p> <p>18. Edozer hizkuntzatan ahozko diskurtsoak sortu ahal izateko, edozer hizkuntzatan garatutako ezagutza linguistiko formalak aktibatzea.</p> <p>19. Berdinen arteko dialogoa erabiltzea, partekatutako ikaskuntzaren tresna gisa.</p>		
---	--	--

II. BLOKEA: IRAKURTZEA ETA IRAZTEA

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<p style="text-align: center;">Ulertzeko prozedurak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Azpimarraketa eta tematizazioa bezalako teknikak erabiliz informazioa diskriminatzea. 2. Idatzizko testuaren egitura globala eta bere atalen erlazio logikoak berreraikitzea, euren arteko kohesioa gauzatu duten elementuak identifikatuz. 3. Testuaren zentzu globala identifikatzea eta ideia nagusiak zein bigarren mailakoak diskriminatzea. 4. Lortu nahi diren helburuentzat, informazio garrantzitsua eta garrantzitsua ez dena banatzen jakitea. 5. Idatzitako edukiaren eta norberaren ezagueren arteko dauden informazio-hutsuneak eta distantzia orekatzen laguntzeko estrategiak erabiltzea. 6. Igorlearen asmoa antzematea, testu idatzian esplizituki edo inplizituki agertzen diren elementuetan oinarrituz. 7. Aurreikusitako helburuetarako jasotako informazioa erabiltzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Idatzizko komunikazioaren ezaugarri propioak. 2. Idatzizko komunikazio egoeren ezaugarri propioak: <ol style="list-style-type: none"> a. solasaldiaren helburua: azalpenak emateko testuak, argudiozkoak, narraziozkoak, deskribatzaileak... b. igorlea eta hartzailea: harreman soziala, lekua eta denbora, gizartean duten kokapena... c. gaia d. kanala, euskarria e. erregistroa, aldaera 3. Idatzizko testu-generoak: albisteak, iritzi-artikuluak, entziklopedia-artikuluak, gutunak, argibideak, arauak, monografiak, mezu elektronikoak, ipuinak... 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Limurtzeko xedea duten mezuen aurrean jarrera kritikoa izatea, batez ere mezu horiek komunikabide sozialetatik datozenean. 2. Aurreiritzi arrazistak, klasistak, kulturalak, sexistak... dituzten erabilera linguistikoaren aurrean jarrera kritikoak garatzea. 3. Testu idatzietan Euskara erabiltzearen aldeko jarrera positibo eta aktiboak mantentzea. 4. Norberak idatzitako testuak berrikustearen garrantzia baloratzea, koherentzia, egokitasuna eta zuzentasuna zaintzeko. 5. Idatzizko testuak menderatzeak daukan garrantzia pertsonalaren eta sozialaren jabe izatea. 6. Informazio iturri desberdinen erabilerak duen garrantzia errekonozitzea.

<p>8. Idatzizko diskurtsoen ulermena erregulatzeko, kontrol-estrategiak erabiltzea.</p> <p>9. Pentsamendua ordenatzeko, idazketa erabiltzea.</p> <p>10. Bigarren hizkuntzan dauden idatzizko testuak ulertzeko, ikaskuntza linguistikorako estrategiak kontzienteki erabiltzea.</p> <p>11. Edozein hizkuntzatan idatzitako testuak ulertu ahal izateko, edozein hizkuntzatan garatutako ezaguera linguistiko formalak aktibatzea.</p> <p style="text-align: center;">Sortzeko prozedurak</p> <p>12. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatzea: helburua, erregistroa, hartzaileak...</p> <p>13. Hainbat iturritako informazioa bilatzea eta prozesatzea: analogikoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...</p> <p>14. Lortu nahi den helbururako informazio garrantzitsua aukeratzea.</p> <p>15. Testuaren edukia antolatzea, eskemak, oharrak, gidoiak... erabilia.</p> <p>16. Idatzizko testuak sortzean, ondoko puntuak kontuan izatea:</p>		
---	--	--

<p>a. komunikazio-egoerara egokitzea</p> <p>b. koherentzia eta kohesioa</p> <p>c. zuzentasuna</p> <p>17. Norberak idatzitako testuak berrikusteko eta erregulatzeko kontrol-estrategiak erabiltzea.</p> <p>18. Edozein hizkuntzatan idatzizko testuak sortu ahal izateko, edozein hizkuntzatan garatutako ezaguera linguistiko formalak aktibatzea.</p> <p>19. Berdinen arteko dialogoa erabiltzea, partekatutako ikaskuntzaren tresna gisa.</p>		
--	--	--

III. BLOKEA: HIZKUNTZARI ETA BERE ERABILEREI BURUZKO GOGOETA

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Bizitza sozialeko jarrera linguistikoaren analisia. 2. Hizkuntzen arteko harremanek eragindako fenomenoaren errekonozimendua. 3. Estatuko hizkuntzak identifikatzea eta beren arteko harremanak aztertzea. 4. Testuak testuinguruko elementuei, testu barrukoei, sintaktikoei eta morfologikoei begiratuz konparatzea. 5. Testuak testuinguruko aldaketei, testu barrukoei, sintaktikoei eta morfologikoei begiratuz eraldatzea. 6. Testuak, esaldien sekuentziak, esaldiak, multzo sintaktikoak eta hitzak eraldatzea (zabaltzea, ordezkatzeko, ezabatzea...), eraldaketa hauek esanahian sortzen dituzten eraginak aztertuz. 7. Adierazpen-markak azaltzen dituzten eta testuaren kohesioa ziurtatzen duten hizkuntz-unitateak identifikatzea eta sailkatzea. 8. Kategoriatu morfologikoen 	<p>Hiztunak eta hizkuntzak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kontaktuan dauden hizkuntzen arteko harremana: diakronikoa eta sinkronikoa. 2. Elebakartasuna, elebitasuna, eleaniztasuna, diglosia. 3. Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko mapa linguistikoa. 4. Hizkuntzak munduan. 5. Erkidegoko hizkuntza ofizialen jatorria eta bilakaera. 6. Hizkuntzaren normalizazioa: euskararen egoera. 7. Hizkuntz eskubideak. 8. Hizkuntzen aniztasuna: hizkuntza, eredu den dialektoa. 9. Hizkuntzen aldaera soziokulturalak. <p>Testuingurua</p> <ol style="list-style-type: none"> 10. Komunikazio egoerako elementuen karakterizazioa. 11. Adierazpen markak. 12. Modalizazioa. 13. Prozedura esplikatzaileak. 	<ol style="list-style-type: none"> 5. Errealitate eleanitzaren balorazio positiboa. 6. Hainbat hizkuntzaren eta beren aldaeren erabilera errespetatzea eta positiboki baloratzea. 7. Edozer hizkuntzatarako hiztunen eskubide linguistikoak errespetatzea. 8. Produkzio propioak erregulatzeke, gogoeta linguistikoaren garrantzia baloratzea. 9. Testuaren koherentziarik ezaren aurrean, sentsibilitate kritikoa. 10. Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra sortzeko, arau linguistikoak errespetatzearen garrantzia errekonozitzea.

<p>identifikatzea eta sailkatzea.</p> <p>9. Adierazpen-markak azaltzen dituzten hizkuntz unitateak eta testuaren kohesioa ziurtatzen dutenak identifikatzea.</p> <p>10. Kategoria morfosintaktikoak analizatzea.</p> <p>11. Produkzioak hobetzeko testu propioen analisisa eta berrikusketa.</p> <p>12. Hizkuntza ezberdinetan helburu berdinetarako erabiltzen diren zenbait hizkuntz prozedura konparatzea.</p> <p>13. Kalkoak eta hizkuntzen arteko transferentzia negatiboak zehaztea eta zuzentzea</p> <p>14. Oinarrizko arau linguistikoak modu egokian erabiltzea.</p> <p>15. Edozein hizkuntzatan hizkuntzari buruz jasotako ezagutzak erabiltzea, besteetan hausnarketa egiten laguntzeko.</p>	<p>14. Erregistroa.</p> <p>15. Arau sozio-komunikatiboak.</p> <p>16. Faktore estralinguistikoak.</p> <p>Testua</p> <p>17. Testuen superegiturak.</p> <p>18. Kohesio elementuak</p> <p>19. Testuaren ortografia: paragrafoa.</p> <p>20. Elementu grafikoak, ikonikoak eta espaziokoak.</p> <p>Esaldia eta hitza</p> <p>21. Esaldia: osagaiak, motak, kategoria sintaktikoen eta logikoen arteko erlazioa, beren elementuen arteko komuztadura.</p> <p>22. Sintagmak: motak eta osagaiak, hauen elementuen arteko komuztadura, deklinabidea.</p> <p>23. Hitza: kategoriak, osagaiak, erlazio semantikoak, osaketa, oinarrizko hiztegia.</p> <p>24. Esaldiaren eta hitzaren ortografia.</p> <p>25. Esaldiaren eta hitzaren fonetika.</p>	
---	---	--

IV. BLOKEA: LITERATUR HEZIKETA

PROZEDURAZKOAK	KONTZEPTUZKOAK	JARRERAZKOAK
